



## ***GIB eta sexu bidez transmititutako beste infekzio batzuen prebentzio kanpainaren aurkezpena***

Bilbo, 2008ko ekainak 9

### **OSASUN SAILBURUAREN HITZAK**

#### **Sxu bidez transmititutako infekzioen bosturteko beltza: 2003-2007**


Azken berrogeita hamar urte hauetako garapen zientifikoak aurrerapen harrigarriak ekarri ditu infekzioen aurkako borrokarako, eta horri esker, haietako askok atzera egin dute.

Halere, salbuespenetako bat sexu bidez transmititutako infekzioak (STI) dira, hauek izugarri ugartu baitira joan den bosturteko honetan mendebaldeko munduan. Begi bistakoa da, kutsapen bidea zein den jakinik, kausa nagusia sexu segurua bertan behera utzi izana dela –orokortua 80ko hamarkadaren erdialdeaz gero hiesaren beldurragatik–, segur aski, antirretobiralen eraginkortasunaren ondorio gisa, arrisku sentrazio hura galdu egin delako, lehen gaixotasun hilgarria zena orain gaixotasun kroniko izatera pasa baita.


Zaila da zehazki jakitea infekzio hauen benetako egoera, beren izaeragatik eta sortzen diren testuinguruagatik, baina Osakidetzako

Sexu bidezko Transmisioko Gaixotasunen (STG) kontsultategiak aparteko behatokia dira joeren eta kolektibo erasanen nondik norakoa ezagutzeko.

Adibidez, sifilisa, sexu bidezko transmisioko gaixotasuna hau ere, bere maila historiko baxuenetara jaitsi zen mendebaldar munduan 90eko hamarkadan. Halere, mende honen hasieraz gero, joera alderantzizkoa da. 2003-2007 bosturtekoan gure STGen Kontsultategietan diagnostikatu diren sifilis kasu berriak 16 bider gehiago izan dira aurreko bosturtekoan baino, 1998-2002, hau da 8 kasutatik 130era pasa gara. Zifra hauek eksklusiboki hiru kontsultategiri dagozkie eta askoz ere zabalagoa eta larriagoa den errealitate baten izeberg punta baizik ez dira.




(OSAKIDETZAKO STGen ZERBITZUAK: SIFILIS BERRIA – Kasu kopurua)



(OSAKIDETZAKO STGen ZERBITZUAK: GONOKOZIAK – Kasu kopurua)

Egiaztatu dugun beste gauza bat zera izan da, kolektibo erasanena gizonezkoekin sexu harremanak dituzten gizonezkoena dela, hain zuzen, sifilis berriko kasuen %77 eta gonokozia kasuen %38.

Era berean, gay kolektiboaren portzentajea gehitu da GIB infekzio berrietan ere, hain zuzen, aurreko bosturteko gizonezkoen %26tik %54ra.



(SIFILIS BERRIA EUSKADIKO STG KONTSULTATEGIETAN. 2003-2007 – Emakume hetero – gizonezko hetero – Gizonezko homosex)

## STIen gorakadaren garrantzia

Islatu dugun errealitateak daukan garrantzia hiru puntu hauetan laburbilduko dut:

1.- Sexu bidezko transmisioko infekzioek gertatzen diren une beretik adierazten digute sexu segurua bertan behera utzi dela eta horrek GIBaren gehikuntza iragartzen du etorkizunerako.

GIBaren gehikuntzak argi erakusten du gero eta gehiago direla arriskuko sexu harremanak dituzten pertsonak; hauxe da, epe laburrera, sexu segurua bertan behera utzi izanaren ondorioa. Baina, horrez gain, iragar daiteke gaur egungo arriskuko sexu harremanetatik GIB kasu berriak ondorioztatuko direla epe ertain eta luzera.

2.- Sexu bidezko transmisioko infekzioek areagotu egiten dute GIBaren transmisio arriskua

Baina, babes gabeko sexu harremanak izatea *per se* hiesaz kutsatzeko arrisku faktore garrantzitsua izateaz gainera, gertatzen da STIek erraztu egiten dutela GIBa harrapatzea edo bikotekideari kutsatzea mukosa genitalean eragiten dituzten ultzera edo lesioen bitartez. Hala, egiaztatu ahal izan da lesio genital sifilitikoen presentzian GIBa kutsatzeko arriskua 2-5 bider gehitzen dela. Horrela ulertzen dira sifilis eta GIBaren aldi bereko infekzioen tasa altuak: gure Erkidegoan, sifilis berria diagnostikatu zaien pertsonen %31 aldi berean GIBaz infektatuak daude.

3.- Ahozko sexua ez da praktika segurua sexu bidezko transmisioko infekzioentzat.

80ko hamarkadaren amaieran eta 90ekoan, ahozko sexuak, GIBaren transmisiorako arrisku baxuko praktika zelakoan, baginatik

edo uzkitik sartzea ordezkatu zuen, oso arrisku altuko praktikak bi hauek.

Gaur, ordea, gauza jakina da ahozko sexua ez dela praktika segurua sexu bidezko transmisioetarako. Azterketa askok frogaturik utzi dituzte sifilis eta gonorreako hainbat kasu sexu harreman ahogenitalak baizik izan ez zituzten pertsonen artean.

### **Zertan ari gara?**

Egoera honetan paradoxikoa –beste izen bat ez ematearren– gure ingurunean gertatzea da, arazoa prebenitzeko hainbat sektoretatik sortutako ekimenak sekula faltatu ez diren lekuan.

Izan ere, Erkidego gutxitan garatuko ziren gurean adina programa, kanpaina eta ekitaldi GIBa eta sexu bidezko transmisioetarako eragozteko. Osasun Sailak etengabeki egin ditu, 1986az gero, prebentzio kanpainak; Farmazialari Elkargoek ekintza askotan parte hartu dute eta hies-aurkako GKEek hainbat programa garatu dituzte kolektibo zaurgarrienetan, azkenekoa GIBaren eta sifilisen detekzioarako test azkarren ezarpena.

Asistentziaren aldetik, Sexu bidezko Transmisioetarako Gaixotasunen unitateak sortu dira hiru lurralde historikoetan, Lehen Mailako Atentzioko eta Atentzio Espezializatuko kontsultategiei erantzun osagarri bat emateko helburuaz. Kontsultategi hauek, gainera, asistentzia normalizatuko sistemara sartzeko eragozpenak dituzten pertsonak atendituak izatea ahalbidetzen dute.

Hezkuntzari dagokionez, bi hamarkada daramatzagu, eskola zentro guztiei material didaktikoa eta irakasleei GIB eta gainerako

STIei buruzko prestakuntza ikastaroak egiteko aukera eskaintzen.

Halere, denboraldi jakin batzuetan arrakasta garrantzitsuak lortu diren arren, nabarmen geratzen da errealitatea tematia dela eta, zergatik edo hargatik, arriskuko praktika sexualetara itzultzeko joera nagusitzen ari dela. Horregatik, beharrezkoa da programa eta ekimen berriak asmatzen jarraitzea –nolabait esatearren– egoera bide onera itzularazteko. Honako hauek dira:

### **Bi jarduera ardatz dituen plan bat**

Deskribatu dugun problematikaren aurrean jokabide bikoitz bat garatzen ari gara: bat populazio orokorra kontzientziazera bideratua eta bestea kolektibo erasan edo zaugarrienari bideratua: sexu harremanak gizonaekin dituzten gizonaekoei.

1.- Hala, bihar, ekainak 10, sentsibilizazio kanpaina bat hastera goaz lema honekin: **“Zeuk hautatzen duzu zeure harremanen barruan geratzen dena. Erabaki ezazu kanpoan geratzen dena ere”**.

Helburu nagusia deskribatu berri dugun errealitateaz ohartaraztea da eta lau mezu funtsezko jaurtitzen ditu:

- . *Sexu bidezko transmisioak infekzioak gehitzen ari dira;*
- . *Sexu bidezko transmisioak infekzioek biderkatu egiten dute GIB/HIESaren arriskua;*
- . *Ahozko sexua BADA arriskuko praktika sexu bidezko transmisioak infekzioetarako;*
- . *EZ da izan behar inolako sexu harremanik preserbatibo gabe.*

Kanpainak hamabostaldi bat iraungo du eta batez ere kanpoko euskarriak baliatuko ditu, adibidez, autobus eta metro

geltokiak eta telefono kabinak. Gainera, irratizko publizitatea egingo da kanpainaren mezu nagusiarekin eta kartelak banatuko dira osasun zentro eta farmazia guztietan.

2.- Lan talde bat eratu da arlo honetan jarduteko: "GIB eta Sexu bidezko Transmisioko Infekzioak sexu harremanak gizonezkoekin dituzten gizonezkoen kolektiboan"; bertan jardungo dute gai kolektiboko GKEetako, hies-aurkako GKEetako eta Osasun Saileko Hiesaren aurkako Planeko hainbat ordezkariak. Talde hau jarduera estrategia bat diseinatzen eta garatzen ari da gay giroko lokaletan sentsibilizazio eta prebentzio mezuak sartzeko.

Euskadin, gay giroko 30 bat lokalez gainera, 8 sauna eta lokal daude bertan sexu harremanak gauzatzeko egokituak. Establezimendu hauetako nagusi eta/edo arduradunekin hitz egin dugu, egoera kezkarri honen berri emateko. Kanpainaren helburuei egin dieten harrera guztiz positiboa izan da. Hori dela eta hasi ahal izan gara lokal hauetan mezu prebentiboak zabaltzen. Hasiera batean gure material informatiboa sifilisean zentratu da, une honetan infekzio hori baita gure ustez, GIBarekin batera, larritasun handieneko sexu bidezko transmisioko infekzioa.

Halaber, material prebentiboaren existentzia bermatuko da (preserbatiboak eta lubrikanteak) sexu harremanak gauzatzen diren sauna eta gainerako lokaletan.

Zalantza gabe, ohitura kulturalak aldatzea nekeza bada, zer esanik ez, are zailagoa da berezko senaren eta jarrera atabikoen aurka borrokatzea. Nire ustez, mundu guztiak daki gaur zer egin behar duen sexu bidezko transmisioko infekziorik ez harrapatzeko,

baina asko dira –betiere gehiegi– hori praktikara eramateko pausoa ematen ez dutenak.

Horregatik, garatzen ari garen proiektu hauek, bai populazio orokorra eta bai sexu harremanak gizonezkoekin dituzten gizonezkoen kolektiboa kontzientziatzeko, handiguratsuak dira, eta balio gehitu garrantzitsu bat daukate: inplikatuena euren partaidetza, eraginkorra izateko funtsezkoa den gauza; gainera, iraunkortasun bokazioaz diseinatuak daude, epe luzera begira, alegia. Izan ere, Osasun Sail honek eta hiesaren aurka inplikaturiko beste hainbat agente sozialek ari dugun borroka ez baita amaituko infekzioek dirauten bitartean. Hori begi bistan dago, ezinezkoa da.

Gabriel M<sup>a</sup> Inclán Iribar

**OSASUN SAILBURUA**